# ARROSAREN JATORRIA

Garai batean, Indonesiako Jaba uhartean, arrosa sortu zen. Kondaira ondo gordeta zuten lurralde horretako jendeari ere, sinetzezina iruditzen zitzaien. Kondairaren hasieran, Xiba jainkoa ageri zen eta berak zerbait berria egin nahi zuen, izaki goren bat, ederrenetan ederrena, itxuraz eta espirituz. Denborarekin eta pazientziarekin, Retoadunmila sortu zuen, gure hizkuntzan harri distiratsua dioguna. Neska zoragarria zen, orduan Xibak berarekin ezkontzeko eskatu zion. Neska izututa gelditu eta zalantzakor ageri zen.

-Ezkondu... ez ezkondu...-esaten zion neskak bere buruari.

Ez zekielez zer egin jainkoengana joan zen zer egin galdetzeko. Haiek, baietz esateko esan zioten eta denbora pasatuz, Retoadunmilak baietz esan zion Xibari, baina baldintza batekin.

Baldintza, ume bat edukitzea zen, zoriontsu izateko. Handik gutxira, Beras deitutako umea jaio zen eta oso pozik bizi ziren, lapur batzuk Beras bahitu zuten arte. Gurasoak, herrialdez-herrialde alabaren bila hasi ziren. Horietako batean, mezu bat jaso zuten: alaba berreskuratzeko Indonesiako gosea murriztu beharko zuten. Orduan, Retoadunmilak ezinezkoa izango zela pentsatu zuen eta negarrez hasi zen, bere malkoak lurrera iritsiz.

Lapurren atzetik asteak zeramatzaten, gosea ezin murriztuturik eta gero eta malko gehiago isuriz.

Oso triste eta nekatuta, azkenengo herrira heldu zirenean, Beras aurkitu zuten kaxa bat eskuetan zuela. Barruan, mezu bat zegoen: lurrera jausitako maitasun malkoak, gosea kenduko duten hazi bihurtu dituzue. Eskerrik asko!


INDONESIA